

# ATXITAMUTXITA

**ATXITAMUTXITA** tximeleta da

  

Aspaldian, animaliek eta landareek



hitz egiten zuten.

 

Garai hartan, Atxitamutxita

  

lore bati itsatsia bizi zen.

  

Ez zen loretik urruntzen.

  

Atxitamutxitak ez zuen hegan egiten.



Lorea kezkaturik zegoen




ez zuen Atxitamutxita bakarrik utzi nahi.



Atxitamutxitak lagunak egin behar zituen.



Baina, Atxitamutxita ez zen ausartzen



ikaraturik bizi zen.

 

Arratsalde eguzkitsu batean

 

inguma bat gerturatu zen

**Inguma** iratxoa da



Atxitamutxitarengana.

  

Euskararen festara konbidatu zuen.

  

Tximeletak ezez esan zion.

 

Goiz euritsu batean

 

pinpilinpauxa bat gerturatu zen



Atxitamutxitarengana.

   

Ez bustitzeko, hostoaren azpian

 

jartzea proposatu zion.

  

Atxitamutxitak ezez esan zion.

  

Atxitamutxita bustita eta hotzez zegoen

 

negarrez hasi zen.

 

Tximeleta bat etorri zen.

 

Konturatu zen Atxitamutxitak

  

ez  zuela ongi ikusten.

  

Atxitamutxitak betaurrekoak  behar zituen.

 

Betaurrekoak jantzi eta





Altsasura joan zen.

 

Euskararen festara.